

Spray-ontzi berria: ez-poluitzailea eta kargagarria

Alfontso Mujika


Zenbat aerosol- edo spray-ontzi dituzu etxean? Kontatu al dituzu inoiz? Labea garbitzeko, altzariak garbitzeko, intsektuak akabatzeko, orrazkerari iraun erazteko, galtzarbe nahiz oinetako izerdi-usaina kentzeko, gelako giroa perfumatzeko, sarrailak, bisagrak eta torlojoak lasaitzeko, ... Ziur asko, kolore eta neurri desberdinetako spray-ontzien bilduma polita izango duzu.

Erreparatu al diezu ontzian letra txikiz idatzita dauden oharrei? Ez naiz letra nabarmenez ageri diren **“Ez du ozonoa kaltetzen”, “Ez dauka klorofloruro hidrokarburorik”, “Produktu ekologikoa”** bezalako oharrez ari. Horiek azken orduko marketing-kanpainen mezuak baino ez dira. Errepara iezaiezu ontziaren behealdean ageri diren (legez ageri behar) beselako hauei: **Kontuz! Presiopeko ontzia. Ez eguzkitan utzi, ezta 50 °C-tik gorako tenperaturan ere. Ez ezazu zula eta ez bota sutara, hutsik badago ere. Ez erabil sugarririk edo gorputz gori-**

rik dagoen lekuan. Ontzi hau suhargarria da. Erabat hustu zakarrontzira bota aurretik.


Beraz, arriskutsua da; atmosfera kaltetzen du; garestia da eta metalezko ontzi hori hustu ondoren ezin da berriro erabili eta bota egin behar da. Gainera, spray-ontzia erabili baino lehen ongi astindu behar da eta ontzia zutik mantendu, asko okertu, etzan edo buruz behera jarriz gero ez bait du produktua ongi kanporatzen.

Yves Privas izeneko frantses injeneru batek elektronikoki gidatutako spray-ontzi bat asmatu berri du. Mikroprozesadore batek solenoide bat kontrolatzen du eta beronek atzeraurrerako ponpa bat higierazten du 40 ziklo segundoko abiaduraz. Ponpa horrek 40 eta 80 mikra bitarteko diametroko tantatxotan haustutzen du produktu likidoa. Behar den energia elektrikoa bateria kargagarri batek ematen du. Pulsadorea behin sakatuta, 8 minutu irauten du spray-aren ahalmenak eta edozein posiziotan erabil-



M. K. Urdangarin

Spray-ontzi kargagarriaren eskema



daiteke, buruz gora, buruz behera, okertuta nahiz etzanda. Ontzia astindu beharrik ez dago, ez bait du gas propulsa-tzailearik erabiltzen. Beraz, atmosfera ere ez du kaltetzen eta ez da suhargarria. Produktua plastikozko (polietileno) ontzi ordezkagarritan gordetzen da. Ontziko produktua agortzen denean, kendu eta haren ordez beste ontzi bat jartzen da.

Frantziako *l'Oreal* kosmetiko-etxeak urte honen amaierarako merkaturatu nahi du spray-ontzi kargagarria eta beste enpresa batzuetan ere probaldian dago orain. 4.000 pezetatan (200 liberatan) salduko da. Hala ere, asmatzailearen ustez “epe luzera sistema hau merkeagoa da gas propulsa-tzailea erabiltzen duten ohizkoak baino, behin bakarrik erosi behar delako eta produktua polietileno ontzietan jartzea aski merkea delako”.